

IÑAZIO MARI-ren balio gutxiko altxorra.

Negua berriro eldu zan eta urtero bezala eguneko orduak laburtu egin ziran, ludia bere eguneroko biran eguzkitik urruntzen joan zan ete bere berotasunetik urrunen aurkitzen zalarik, eguraldiak otz antzekoak bihurtuak zeuden. Eguzkiak, odei tartetik azaltzen zanean egun-argiak dituan ordu murriztuetan, ez zuan epeltasuna besterik eskeintzen eta orrelakoetan, Iñazio Mari, mutil zaarra, urtez ondotxo ornitua zegoanak, bera bizi zan etxe inguruko babesleku batean bereganatzen zuan eguzkiaren gozotasuna gorputza berogarrien bitartez ongi estalia zeukalarik, baiña orrelako egoara ez zan gertatzen berak nai izango zukeen aibat aldiz. Noizik bain bakarrik izaten zuan egokiera ori.

Iñazio Mari, bere gaztaroan, Ego-Amerika-ra joan zan beste asko bezala, batetik, soldadutzatik itzul egiteko ta bestetik berriz, an urte batzuk igaro ondoren diru piska bat eginda, garai aietako "amerikano" baten antzera bere jaioterrira biurtzekotan.

Baiña berak alde aurrez atera zituan kontuak ez ziran ain zuzenak gertatu ta uste baiño urte geiago igaro bear izan zituan lurralde aietan altxor piska bat osatu arteraiño; eta, bere ustez, naikoa izango zuala iruditu zitzaionean, an zuan azienda koskorra saldu ta bere lurraldera abiatu zan.

Bere gazte denborako lagunak txundituta usteko asmoz, lurralde aietatik irten baiño leenago, itsas-ontzia artzera urbidu zan uri aundi artan, sakeleko ordu-kari bat erosi zuan eta baita ere zillarrezko kate eder bat, txalekoaren alde bateko patrikatik beste aldearaiño iristen zana, erdian zillarezko domiña aundi bat zintzilik zuana.

Ogei bat egun itsas-zabalean zear, itsas-ontziko lekurik merkeenean igaro ondoren, Bilbao-ko kaira iritxi zan eta bereala egin zituan moduak bere errira nola joan zitekeen jakiteko, bada berak alfe egin zuanetik gauzak asko aldatu ziranez, aaztu egin zitzaion non barrena joan bear zan bere jaioterrira.

Lenengo gau, aipatutako urian igaro bear izan zuan eta modu oneko ostatu baten galdera egin zuanean berealderman zioten kai inguruan zegoan baten zuzanbidea.

Ostatura eldu zanean eta apaltzeagatik, lo egiteagatik eta urrengo goizean gozaltzeagatik eskatu zioten dirutzagatik arri ta zur geratu zan eta gau artako aparria urdail gainean gelditu zitzaion eta gau osoan amets larriak egin zituan, gogoraturik bere lurraldetik alde egin zuanean otordu bategatik ordaintzen zana eta orain eskatu zioten dirutza berdinkaturik. Izaturik zegoan ikusirik leenengo orduak kostatzen zitzaizkion txanponen arabera ezingo zala bizi berak amets egin zuan eran, eta izerdi patsetan igaro zuan gau osoa.

Ogei gau, aipatutako urian igaro bear izan zuan eta modu oneko ostatu baten galdera egin zuanean berealderman zioten kai inguruan zegoan baten zuzanbidea.

1949 - 2 - 21

Iñazio Mari

Ogei gau, aipatutako urian igaro bear izan zuan eta modu oneko ostatu baten galdera egin zuanean berealderman zioten kai inguruan zegoan baten zuzanbidea.

Urrengo goizean era . . . ontan oldoztu zuan : " Nik emendik alde egin nuan, ez zan orrelakorik gertatzen, baiña, gaurko egunekoak bizimodu errezean oituek daude ta dirua aisa irabaztea gustatzen zaie. Onak daude auek nik an igaro ditudan neke ta atsokabeak pasatzeko, sos batzuk aurreratzeagatik ! Auei, danak esku-zabalak izan bear dugula iruditzen zaie eta berak eskatzen duten guztia eman bear zaiela ! Nere ustez, dirua ez da orrela egiten, baizik eta guk an egin dugun bezala, mendi aldean bizituz, tarteka-tarteka, inguru samarrean, amar edo ogei kilometrotara bizi zan ezagun batengana urbilduz, solasaldi bat egin eta batak besteari buruko illeak moztuz eta aurpegiko bizarra kenduz.

Jateko, berriz, illean bein inguru aietan ibiltzen zan merkataria bateri mendian sortu ezin ditezkeen, bizitzeko bear-bearrezkoak gauran zerbaitez erosiz ; arto-iriña taloak egiteko, olio piska bat eltzeakoari erakusteko koipe usala ardean, kafe piska bat noizean bein artzeko eta gainerako gauzak baratza txiki batetik sortutakoak. Okela, berriz, ardi edo zekorren ^{bat} ondoezik edo elbarrituta iltzen ba zan bere aragia zezindu eta okeletarako prestatuz. Galtzerdiak artillekoak, neronek egindakoak, eta soñ-gaiñeko estalkiak ardi-larruzkoak eta lotarako, garoarekin egindako oe gogorra.

Era ontan, gau eta egun etxe inguruan bizituz eta urtean iru edo lau aldiz urira itzuliz, bildotsak edo gizendutako ganaduak saldu, salmentan artutako diruak diru-etxe batean sortu, bene-benetako premiazko gauza batzuk erosi eta eal zan merkeen sabela bete-ta, ondoren, berriro etxera biurtu iñongo edaritegiotan sartzeke eta goiz aldera etxeratu, bidean leer eginda gero "

Modu ortan igaro zituan urteak eta urteak eta bitartean amaika amets egin zituan, naiz eta auek gero-ta illunagoak, kezkatuagoak eta ezkorragoak gertatu, konturatzen bai zan adinean aurrera zihoan bezala bere gorputza makaltzen ari zala, gaztetasuna aspaldi alden du zitzaiola ta bere errian bizi zan eta askotan bururatzen ziotzaion neskato xarmangarria, berak aldegin zuanean oraindik gaste-txoa zana, onezkero ezkondua egongo zala ez ba zan murrindin gelditu, beintzat.

Baiña, ala ta ere ez zuan itxaropenik zeoro galdu batenbat izango zala, eskubiko patrikatik ezkerreko araiñoko zillarrezko katea erdian medalla aundi bat zintzilik zuela errian azaltzen zanez, berataz maiteminduko zana, naiz urtetan aurreratua egon, bere bizitzeko azken urteak maitasun giro batean igarotzeko, leenago ere gartatu izan zan bezala Amerika-tik biurtutakoekin.

Eta leenago aipatu dugun bezala, naiko dirutza pillatu zuela iruditu zitzai-
nean Era ontan oldoztu zuan " Lareun bat milla duro aurreratua daukat eta di-
ru orrekin nere errira joaten naitzenean, baratza txo bat duan etxetxo bat, ka-
le inguruan eros nezake eta baxena antolatzen beste milla duro pare bat gasta-
tuko ditut eta era ortan ikusten nautenean, ez zait paltako norekin ezkondu, ba-
tez ere nere emazte izan nai duanari amar milla duroko ezkon-saria mango dudu-
la zabaltzen danean. Gaiñontzeko diruak korrituan jarriko ditut eta aiek ematen
dutenarekin edarki bizi gaitzeko eta baita ere semetxoren bat izan eta bear dan
bezala azi ta ezi, nere abizena betirako gal ez dadin "

Baia asieran esan dugunez, bere aberrira eldu zanean eman zituan lenengo pausoak ez ziran oso baikorrak izan eta geroago ikusiko zuanaren agerkari bat besterik ez ziralarik, urrengo goizean, goiz samar, ostaturko kontua ordaindu ondoren, etxerako bidea artu zuan eta eguerdi alderako iritxi zati bere jaioterria, trenan utzi zuan geltokitik hamar kilometro oñiez egin ondoren, bada ez zitzaion iruditzen taxi bat artu bear zuanik bere errira itzultzeko.

Kalera inguratzen ari zan bezala, arriturik aurkitzen zan, ez bai zion tankerarik ere ematen berak utzitako lurraldeak egin zuan aldeketarekin. Kale ertzean etxe asko eraiki zituzten, erriko lurretan zegoen burdin-~~oala~~ batean lanean ari ziranentzat, geienak atzerribarrak ziralarik eta nabaritzen zan giro oso ezberdina zan.

Ez zuan inor ezagutzen eta gatzuten zuan izkuntza arrotza gertatzen zitzaion, batez ere uncek jolasean zerabilkitena, erdera alegia.

Kalera zera aurrera zijoala, berak garai batean ezagutu zuan Kaspar'en taberna zera eraberritua zegoan, eta barrura sartu zanean, bertan zeudenak, berari eta zilbor gainean zeraman zillarrezko kate eta bertatik zintzilikatzen zitzaion dominiari begiratu, gizaki nabarmen bat ba'litiz bezala begiratzen zioten. Ala ere, tabernaria, Kaspar'en semea, berrogei eta hamar bat urtetakoa, euskeraz mintzatu ziotzaion eta lenengo elkarrizketa berarekin izan zuan.

Erri artan jaio eta ogei urtetaraino bertan bizi izan zala adierazi zion eta bere familiaren berri jakin ^{mai} zuala. Ostalariak, zein baserritakoa zan jakin zuanean, bere senide urbillenak illak zirala jakin erazi zion eta bere jaiotetxea aspaldi bota zutela bide berria egiteko, eta, lekua oso egokia zalarik, bere lurretan landetxe batzuk eraiki zituztela eta kaletar dirudun jendea bizitzen zala etxe berri aietan. Etxe aietako bakoitza seireun eta zazpireun mila durotan salduak izan zirala bost urte leenago eta gaurko egunean askoz geiago balio zutela.

Etxerako geratu zan anaiaren ondorengoek, maisterrak ziralarik, etxe bota-tzerakoan diru piska bat eman zitetela eta kale aren buketan zegoan etxe batean bizi zirala, baratza txiki bat ba'zutela eta bere illobak, leena aipatutako pabrikan lan eginiez bizi-modua ateratzen zuala.

Gure Inazio Mari zera izututa gelditu zan entzun zuanarekin, batez ere berak zekarren diruaren balio eskasarekin eta aurpegia orma zuria baiño zuriago jarri zitzaion, mintzurria egiteko moduan. Katillukada bat salda beroa artu bear izan zuan bere onera etortzeko. Leku onean zeuden aren garai bateko ametsak, bere ustez erriko aberatsena bezala biziko zala uste zuanean, konturaturik bere diruak pillatu zituan baiño ariñago gertatu zala gauzen garestitasuna.

Lenengo uno larriak igaro ondoren bere illoba non bizi^{gan} jakin zuenez, aren etxe aldera abiatu zan eta nola aurkeztu ez zekiela aurkitzen zan, bada ez zekien bere izena ere, etxetik alde eginda gero jaioa bai-zan. Beldur zan, berrogeita geiago urtetan bere berririk izan ez zutelarik, aspaldian aaztua izango zutela eta ez ote zioten sinistuko bera zala osaba Iñazio Mari, gazterik Amerika aldera joandakoa.

Etxeke atea jo zuanean, neskatilla panpoza bat agertu zan ate ondora, eta alako baserrian jaiotako Jeolimo zanaren semea an bizi al zan galdetu zionean baietz erantzun zion, era berean aitari dei egiñez.

Berrogei urte inguruko gizon lerdin bat azaldu zan etxe barrutik eta ikusi zuanean gure Iñazio Mari, atzerriko jantziekin eta zillarrezko kate eder ura agirien zuala, arrituta gelditu zan. Iñazio Mari, berriz, zer esan ez zekiela, zotinka asi zan, bada bere illobaren aurpegia ikusi zuanarekin batera, bere anai zaarrena gogorazi zion, antza aundia bai zutela, eta era berean bururatu zitzaizkion bere aita-ama ta gainontzeko senideak, berrogei ta geiago urtez leenago jaiotetxean utzi zituanak berak alde egin zuanean.

Illobak, artean nor zen ez zekiellarik, urrikaldu egin zan gizonatzaz eta barrura sartu erazi zuan eta zerbait artzeko eskeiñi ere bai. Orduan, Iñazio Mari, piska bat lasaitu egin zan eta alako batean, nundik asi ez zekiellarik, poliki-poliki ta gauza asko atzekoz aurrera esanez, nor zan agertu zion. Orduan gogoratu zan illoba, amonak nola kontatzen zien tarteka-tarteka, ba'zuala seme bat Amerika'tan, Iñazio Mari izena zuana, joan zan ezkerroztik ez zutela bere berririk izan, baiña ziur zegoala egunen batean biurtuko zala jaioterrira ta opari ederren bat ekarriko ziola, oso biotz onekoa zalako. Baiña, amona ta aitona aspaldi il ziran eta baita ere bere gurasoak, bere itzaropenik osatu gabe.

Illobak, baratzara, parazki billa joana zan emazteari dei egin zion eta auzo ere, nor zan jakin zuanean asko poztu zan, batez ere, oarturik itxuraz beintzat ez zala arlote baten antzera azaldu, beste askorekin gertatu izan oi zan bezala.

Berriketaldi bat egin ondoren eta eguerdia zalarik, bertan bazkaltzen gelditzeko eskatu zioten eta bitartean itzegiten jarraituko zutela.

Orrela, semea eskolatik etorri zanean, danak bazkaltzen jarri ziran eta piskanaka, emekiro, bere bizitzaren berri eman zien. Zenbat neke, zenbat estualdi, zenbat larritasun pasa bear izan zituan urrutiko lurralde aietan, zenbat aldiz damutu zan emendik alde egiña eta era ortako gertaerak. Joan eta urte gutxitara, pozik itzuliko zala, baiña, batetik etortzeko dirurik ez, eta, bestetik berriz, etortzen ba'zan desertoretzat artuko zutela eta soldadutza luze bat egin beariko zuanaren beldurrak bertan geldi erazi zuala. An ere zakurrak ahkutsik ibiltzen

dirala ta etxeko berotasunetik urruti bizi izan bearra bakard^{du} negargarria gertatzen dala.

Bazkaria bukatu ta osaba eta senar-emazteak bakarrik gelditu ziranean, lendarbiziko lotsa galdu ondoren eta baita ere sab_ela ondo betea zeukalako, Ameriakⁿ egiten zituan baiño otordu ohea egin zuelarik, zintzotasun osoarekin mintzatu zitzaien eta baita ere azierazi nolako asmoekin dirua aurreratzen arituzan, baiña Euskalerrira iritxi zenarekin batera konturatu zala bere garaian m_illaka duro batzuk izatea aberats izatea zala, duroak banaka-banaka g_artatzen ziralako, baiña orain eundaka esku artean erabilli bear zirala ta lur jo-ta aurkitzen zala.

Itz asperraldi bat egin ondoren eta urrikaldurik Iñazio Mari gizarajoak gramen zuan ustegabekoarekin, senar-emazteak laguntza eskeiñi zioten eta etxean artuko zutela agindu, eta nola edo ala konponduko zirala. Osaba, oso pozik jarri zan eta bere aldetik ere agindu zien, zituan diruak korrituan jarriko zituala ta auker ematen zuten erreitua beraien emango z_ela ta orrezaz g_aiñera notari baten aurrean agiri bat izenpetuko zuala b_era iltzen zanean here ondasunak eurentzako izateko.

Era ortan, etxeko ganbaran zeukaten gela bat, kanppotarren bat gertatzen zanean bakarrik erabiltzen zutena, berarentzat antolatu zioten Iñazio Mari'ri, berak eskatu bezala, bere bizitzako azken urteak patxaran igarotzeko lekua.

Gau artan, osaba mutilzaurrak, oso lo gozoa egin zuan, bespera gau_ean baiño lasaiago bai-zegoan eta gorputza ere nekatua zeukalako. Bere illobaren alaba gaztea ikusi zuanarekin batera konturatu zan garai bat_ean egin zituan ametsak amets ustelak izan zirala, bera zaarregia zala bizi-modu berri batean asteko ta diruaren usaian artutako andre bat baiño obe izango zuala maitasunezko giroan bizi osaba bezala artu zutenen artean eta amets-iñozoak betirako alde batera utzi.

Urrengo egunetik bizikera barri bat_ean m_irgildu zan eta egun bat_ean here gaztaroko kidekoren batekin topo egiñoz eta best_ean beste batekin, poliki-poliki jendea ezagutzen joan zan eta baita ere jakiten, beste asko, bere eskolakide izandakoak, batzuk b_este leku batzutara aldatu egin zirala eta besteak berriz, munduko ibillaldia bukatu ondoren illerrian aurkitzen zirala, kanposantuko pakean.

Adiñean aurrera zijoalarik, gero ta geiago babesten zan etxe inguruan, batez ere negu aldean, eta eguraldi txarretan, gelako leiotik so egiñez edo egokiera zuanean etxe bazterreko babesleku bat_ean, asieran aipatzen danez, eguzkiaren gozotasuna bereganatzen zuan muskerrak eguzkitan atsedontzen diran antzera.

Elizara maizago joaten zan, beste lurralde aietan igarotako urteetan ez bai zuan orretarako egokierarik izaten, naiz tarteka-tarteka bere anak erakutsitako otoitzak egin, batez ere larrialdiren bat gertatzen zitzaionean.

Era orten urteak joan eta urteak etorri patzaran bizi zan gure Iñazio Mari. Muzik bein bururatzen zitzaizkion Amerika tan jasan bear izan zituan neke ta naigabeak, gaztaroak berarekin duan ausardia bitarteko dalarik gertatzen diranak, jainko-diruak eragifiazten dituanak eta azken batengan berari gertatu zitzaion bezala. Karaka asko eta arraultz gutxi, urrutikoak amala bertaratu la lau.